

EIBARTAR ZELEBRIAK

Izen onekin argitaratzera noia eibartar zelebren batzuen gertaera umoretsuen barrixak.

Eibar-ek, Zuloaga-k pinturara edo Juanito Gisasola-k musikara moduan, emon ditxu beste gizon batzuek umorerako. Ze, ezer goragarririk izan bada erri onetan, bertako semien umore garbixa da ezau-garririk onenatarikua, ta umoria be bere arte berezi baten jabe da.

Bertan ikusiko dogu erri-giro batek sortutako jatortasuna, lengo Eibar-ko gizonen argitasuna, euren izketa jatorraren indarra, bako-txaren zirikadak euren sikolojia modua agirixan ipintzeskuela. Orre-gaitxik, egizko mamiñari ezer ez ukatzeko, eibartarren euskera berian emongo ditzudaz.

Emengo gertaera batzuek *Pernando Plaentxiatarra* ta *Zirikidak* li-buruan argitaratu ziran. Beste batzuek laster azalduko dan *Estenka-dak* liburutik ataratakuak dira, baña geixenak ifioiz eztira argitaratu. Era onetara batzia nai izan ditzudaz, zelebrequeri bako-txak bere jabia dabelako, ta jabe bako-txak bere joera, emen garbi ikusiko dogun letz. Eibartar jator bat iltzen dan bako-txian, badirudi gure errixan zati bat daroiala beste mundura. Ta, ondo merezitxa, emen gelditxu deixazela zelebrienen izenak, euren izakeratik sortutako gertakizu-nekin.

Geixagoko presentaziño barik, ara emen erri baten gatza uneta-raño agirixan.

J. S. M.

KAITANO KAREAGA-N URTERA ZELEBRIAK

Kaitano Kareaga, bere 86 urtegaz, oindiok osasuntsu bizi da Eibar-en bertan. Txikixa da baña buru argiduna. Txikixa izana gaitxik edo, beti dan baño gaztiagua agertu izan da. Ori dala-ta, bein batian, esan ei zetsan plaentxiatar batek:

—San Antonion ume txikixa dirudizu.

Zer ba? —erantzun zetsan Kaitanok.

—Ba, aretxen moduan, beti igual-igual zara-ta. Sekula ez zara zartzen.

Beste baten be, urtietan aurrera zoiala, aspaldixan alkar ikusi bako lagun zar batekin tope ein ebanian. Dempora bateko aiskide arek esan ei zetsan:

—Oñezkero i be urtiak aurrera oia, Kaitano.

—Bai, gizona, irurogetamar ointxe bete.

—Ene! Ez ditzuk emoten.

—Ez ba, ezin emon; emon al ba-naitxukek ez naitxukek eukiko.

—...? Beintzat, emoten ez baditzuk be gogor agertzen aiz.

—Jakiña, geruago ta gogorrigo.

—Ee!

—Bai, gogorran-gogorrez makurtzeko be gauza ez naixela.

* * *

Biargiña gutxi lazkoa izan da Kaitano ta gañera grabauan ezautu danik puntarengua. Alfonso XIII-garren erregiarentzat pistola bat grabau ei eban, eta aña arritxuta gelditxu ei zan erregia eze, Gernika-ra etorri zan batian, deitxu ei zetsan biarran ikusi naixan. An zan gure Kaitano bere erremintxegaz trankil-asko erregia ta bere inguruko jaunen aurrekaldian bere biarrari jardunaz. Ta jaun batek esan ei zetsan:

—Ainbeste lagunen aurrekaldian biarra eitxen ez al zara nerbio ipintzen?

—Ez. Dakidalako zuetariko iñork ez dakixala nik aña.

* * *

Bein, Mercedes bere alabiak esan ei zetsan:

—Aitxa, Koliseora juan biar ziñake, Santa Teresitan bizitza emoten dabe zinian. Negar eraitzekua da, baña asko gustauko jatzu.

—Negar eraitzekua ta gustau? Nola leiken ori? Ik esateko ezton asko.

Juan zan ba domeka arratsaldian Koliseora bere alabian eskariz eta ixa zine guztia andraz josita billau ei eban. Gizonezko banakaren batzuk or-emen, ta ume mordua.

Butaka numeraua eukan da andra artian tokau ei jakon. A ei zan zoriona bere buruantzat: "Bedinkatua zera zu andra guztien artian", bururutzen ei jakon.

Pelikula erdixa baño len, bere alboko andra bat, pañuelua atarata

negar-zotinka asi ei zan Santa Teresitan martirixuari begira. Kaitanok, ori ikusizaz, gozatu naixan, preguntau ei zetsan:

—Senidia dozu ala?

* * *

Marixa ei zan zorren lorratzak aldia guztietan lagatzen zitxuana. Urriñetik ziar baño ezpazan be, Kaitanon senitxarteko eitxen ei zan, ta sarri juaten ei jakon illetia joaz diru eske, al ebanian berriz itzulzekotan. Bakarrik, aren al izatiak aña urrixak ei ziran eze, emondako diruak paseko usuana eitxen ei eban: juan da geixago etorri ez.

Or bein, beste askotan moduan, nun agertu jakon biarran euan lekura bertara. Ikusi orduko, Kaitanok esan ei eban berekautan: "Emen dok eskalarixa: Padre Juan eztanian, gure Marixa; beti itxuraz larrixa. Onak jaukak arpegixa. Izango dok oñ be diru egarrixa ta Kaitanori boltsilluan zulo barrixa: au bai gauza agirixa."

—Ai! Kaitano, ointxe estu nago ba...

—Baitxa neu be.

—...ez dakitx zer ikusi biar dodan.

Kaitanok bere buruari: "Nik ba-jakiñat ba zer ikusi biar dodan". Baña gure Kaitano beti bezela errukitsua:

—Zer pasatzen jatzu, ba?

—Ogei duro falta ditzut. Derrigor biar nitxuke.

—Ara ba. Autsiz amar bai ta olan bixok amarna duro galduko ditzuguz.

* * *

Lagunekin broma ederrak pasatzen be ezta izan mutil txarra.

Egun batian, ondo bazkaldu ondorian, Kasino Artistan, kafiakin Martell kopa bat eskatu eban. Lagunak arritxuta gelditxu ziran, baña Kaitanok, serixo-serixo jarraitxu ei eban jai arratsalde aretan, zein da zeremonia baten balego letxe, lantxian-bein poliki tragotxu bat eñaz Martell kopiari.

Arratsalde erdirutz asi zan oika ta aika, tripara eskuak eruanda, miñez balego moduan. Alboko batek esan zetsan:

—Baña, zer dok Kaitano, zer pasatzen jak?

—Nik jaukat txixalarrixa, mutillak!!

—Lelua aiz ala! Ez ago leku txarrian. Juari komunera ta baketu ari.

—Ez olakorik, mutillak. Ez orraitxiok. Bein bost duro pagau ezkerok Martell kopia, eutsi al dan guztia! Eutsi!!

* * *

Eibarkurutzeko Kasino Artista izan da beti Kareaga ta bere lagunen leku artua, beste eibartar jator askoren letz. Da, Kaitano, Arragueta aldeko kantoit ertzeko bentanan ikusi izan dogu amaika aldiz.

Difinenez, azpikaldian, Patxi-txikiñeko tabernan batzen diran Peña Gallastegi-kuak, bolara batian ixa egunero eitxen ei zitxuen afari-merianda ederraskuak. Oitxura zarra da, bai Eibar-en eta bai inguruko errixetan, jan-edanak eitxeko aitzikiz soziedadiak organizatzia. Izentzat pelotarixa, ziklistia edo toriadoria, "Peña" aurrian ipiñitxa bardin-bardin da, kustiñua da lagunartian umorez pasatzia. Oñ, Kaitano Kareaga, Galdo-txiki, Petit, Felix Legarre ta olako ale-takuak ez dauke lagun biarrik umore onian pasatzeko; euren personalidadiak naikua indar dauka.

Ba, Peña Gallastegi-kuak afari-merianda ederrak eitxen zitxuen bolara aretantxe, Kaitanori allegatzen jakon bera egoten zan bentanara kazuelen lurrunaren usain gozua. Ta, egun batian, ogi utsakin juan ei zan Kasinora, ta bere txokuan nasai jarritxa, lantzian bein puxketatxo bat kendu ta bentanan euki ondorian, jaten ei eban. Lagunak arritxuta begiratzen ei zetsen, zoratu ete zan, ta bestia, bentanan eukitxako ogi puxketak mausta-mausta uts-utsik jaten.

Batek galdetu ei zetsan:

Zer darabik, Kaitano, ogixa aizetuta jaten?

—Patxi-txikiñetik okelarik eztok etortzen, baña pena emoten jestak usain onurakor onek galdu biarra. Au lurrun-au aprobe txagarrria dok.

* * *

Kasino Artistako kantoiko bentanan euan batian, kalerutz begira esan ei zetsen laguneri:

—An joiak aintxiñako nobixia.

Entzutiaz bat, abixau ziran lagun guztiok Kaitanon aintxiñako nobixia nor izan zan jakitzeko. Ta an ikusi eben Emilia, bere andria.

* * *

Aintxiña batian, ederra zirixa sakatu biar izan zetsan Mari-Ospitxal zarrari. Eibar guztiak dakixan letz, Mari-Ospitxaleneko dinastixia izan dira beti erriko pregoilarixak. Kareagak asmau eban kantzontxilluak galdu zitxuala ta Mari-Ospitxalenera juan da esan ei zetsan pregoia joteko errixan, ia iñok billau zitxuan, euren labandiriari bidian galdu jakozela-ta.

—Bueno, ta zelan igarri euriak dirala jakitzeko? Ezaugarriarik bai al jauken?— Esan ei zetsan Mari-Ospitxalek.

—Bai gizona. Eukiko etxuen-ba. Neure inzialak jarioezen, Kaitano Kareaga: K.K.

Geixagoko barik, asi ei zan Mari-Ospitxal pregonerua Eibar guztian kalez-kale, tanborra joaz, olan diar eitxen:

—Jaun-andriak: Atzo, erri onetan, kaltzontzilluak galdu dira; ezaugarritzat: K.K. daroie!

* * *

Beste bein.

—Gauza bat nai neuke nik jakiñ.

—Zer?

—Nun il biar naixen.

—Zertako?

—Araxe ez juateko.

* * *

Kaitanok bere ago-miñian erabiltzen ditxuan esaera bi dira:

“Tontuan seniderik urrenengua: arrua.”

“Bada gauza bat gutxiago daukanak geixago daukanari emoten detsana: lotsia.”

* * *

Onek agiri bat besterik eztira Kaitanon urtera zelebriena. Bere denporan batu izan balira, liburu eder bat betetzeko afia be-euan. Olako urterak berban-berban izan ditxu, ta bera ezta gogoratzen, ze bera izan da balixorik gutxien emon detsena berez urtetzen zetselako.

Geria-ko sakristauan lojikiak ez eukan errazoi makala (gerratian, Eibar-tik aldeti, Mallabiko Geria auzuan egon ei zan), bere urtere-gaitxik esan ei zetsan: “Kaitano, *kudranuan* eskribitzeko moduko gauzak esaten ditxuzu zuk.”

Ta ara emen nun ikusten doguzen EGAN *kudranuan*.

J. SAN MARTIN.